EIBARKO UDALA

## ALKATETZAREN PROPOSAMENA – ZERGAK IZOZTEA ETA ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA.

## PROPUESTA DE ALCALDÍA – CONGELACIÓN DE IMPUESTOS Y MODIFICACIÓN ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES.

Udal Gobernuko taldeak 2022rako udal-zergak izoztearen aldeko apustua egiten du, egungo egoera ekonomikoaren aurrean arduraz jokatu nahian. Horrela, presio fiskalari eutsiz, aipatutako egoera ekonomikoak herritarrengan izan dezakeen eragina txikiagotzen lagunduko du.

El equipo de Gobierno Municipal apuesta por la congelación de los impuestos municipales para 2022 como un ejercicio de responsabilidad ante la situación económica actual, contribuyendo así mediante el mantenimiento de la presión fiscal a minimizar el impacto que la situación económica mencionada pueda tener sobre los ciudadanos.

Aurrekoa gorabehera, Ondasun Higiezinen gaineko Zergari dagokionez, aipatu zerga hori arautzen duen Ordenantza fiskalak familia ugarientzako hobaria arautzen du.

No obstante lo anterior, en relación con el Impuesto sobre Bienes Inmuebles, en la Ordenanza fiscal reguladora del referido impuesto se regula una bonificación para familias numerosas.

Alde horretatik, indarrean dagoen hobariaren izana ezertan aldatzeke, beharrezkoa da:

- Hobaria eskuratzeko aurkeztu beharreko dokumentaziotik “fotokopia” hitza kentzea.
- Zerga sortzen den unean, bizikidetzako bolantea Udalak berak erantsiko diola eskabideari gehitzea.
- Gauzak argitze aldera, hobaria urtero eskatu behar dela adieraztea.

En este sentido, y sin modificar el espíritu de la bonificación que está en vigor, es necesario:

- Eliminar la palabra “fotocopia” de la documentación a presentar para acceder a la bonificación.
- Añadir que será el Ayuntamiento quien adjuntará a la solicitud el volante de convivencia a fecha del momento del devengo del impuesto.
- A efectos aclaratorios, indicar que la bonificación se deberá solicitar anualmente.

Bestalde, 2021eko ekainaren 18an, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean ekainaren 8ko 49/2021 Dekretua kaleratu zen, “jenderik gabeko etxebizitzei eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzeko neurriei buruzkoa”. Dekretu horrek ezartzen du kanon bat ordaintzea dela etxebizitza hutsak deklaratzearen ondorioetako bat. Beraz, bikoiztasunik gerta ez dadin, Eibarko Udalak zergadunei eskatzen dien Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren kuota likidoaren 100eko 50eko errekargua

Por otra parte, el pasado 18 de junio de 2021 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco el Decreto 149/2021, de 8 de junio, de vivienda deshabitada y de medidas para el cumplimiento de la función social de la vivienda. Dicho Decreto establece el abono de un canon como una de las consecuencias de la declaración de las viviendas deshabitadas. Por tanto, y para evitar duplicidades, se propone eliminar el recargo del 50 por 100 de la cuota líquida del Impuesto sobre Bienes

kentzea proposatzen da. Errekargu hori, aipatu zergaren subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza ez diren bizitegi-erabilerako ondasun higiezinei, edo errentan edo erabilera-lagapen bidez beste hirugarren baten eskuetan utzi ez direnei eskatzen zitzaien.

Gauzak horrela, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala aldatu beharko litzateke, proportzionaltasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioak dioena betez.

Proposamen hau eta behin betiko onespena jasoko duen araudia Eibarko Udalaren webgunean argitaratuko dira. Era horretan, hauxe ahalbideratuko da: alde batetik, indarrean den araudia eta hura prestatzeko prozesuari dagozkion dokumentuak eskuratzeko bidea erraza, unibertsala eta eguneratua izatea; eta, bestetik, hartzaile izan daitezkeenek parte-hartze aktiboa izatea arauen prestakuntzan, hori guztia gardentasun-printzipioaren baitan.

Efizientziaren printzipioari jarraituz, araudiaren aldaketa honek administrazio-zama alferrikakoak edo erantsitakoak saihestu nahi ditu eta, halaber, bitarteko publikoen kudeaketa arrazionalizatu.

Azkenik, hauxe adieraztea:

- Familia ugarien hobariari buruzko aldaketek ez dute eraginik izango aurrekontu- eta finantza-egonkortasunean, helburua aldaketak eguneratu eta argitzea baita.

- Joan zen urtean, gutxi gorabehera, 53.300,00 euro bildu ziren etxebizitza hutsei ezarritako errekarguaren kontzeptuan. Hori ezabatuta, diru-sarrerak esandako

Inmuebles que el Ayuntamiento de Eibar exige a los contribuyentes por aquellos bienes inmuebles de uso residencial que no constituyen la residencia habitual del sujeto pasivo del referido impuesto o de terceros por arrendamiento o cesión de su uso.

Siendo esto así, sería necesario modificar la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto Sobre Bienes Inmuebles, cumpliendo así con el principio de proporcionalidad y de seguridad jurídica.

Esta propuesta, así como la normativa que definitivamente se apruebe, serán publicadas en la página web del Ayuntamiento de Eibar para posibilitar, por una parte, el acceso sencillo, universal y actualizado a la normativa en vigor y los documentos propios de su proceso de elaboración y, por otra, para que los potenciales destinatarios tengan una participación activa en la elaboración de las normas, todo ello en base al principio de transparencia.

En aplicación del principio de eficiencia, esta modificación de la normativa intenta evitar cargas administrativas innecesarias o accesorias y racionalizar, en su aplicación, la gestión de los recursos públicos.

Por último, indicar que:

- las modificaciones relativas a la bonificación de familias numerosas no van a afectar a la estabilidad presupuestaria ni financiera en la medida en que tienen como objetivo actualizar y aclarar la misma.

- en el año 2020 se recaudaron, aproximadamente, 53.300,00 euros en concepto de recargo de vivienda vacía. Con la eliminación del mismo se reducirán los

zenbateko horretan murriztuko dira; hala ere, diru-sarreren murrizketa hori leundu egingo da hutsik dagoen etxebizitzari eta etxebizitzaren gizarte-funtzioa betetzeko neurriei buruzko ekainaren 8ko 149/2021 Dekretuan ezarritako kanonaren diru-bilketarekin, eta, beraz, hasiera batean behintzat, aldaketa honek ez du kalterik egingo aurrekontu- eta finantza-egonkortasunean.

ingresos en el referido importe; no obstante, esta reducción de ingresos se verá mitigada por la recaudación del canon establecido en el Decreto 149/2021, de 8 de junio, de vivienda deshabitada y de medidas para el cumplimiento de la función social de la vivienda y, por tanto, en principio, esta modificación no afectará a la estabilidad presupuestaria ni financiera.

Esandako guztiagatik, aldaketa hauek egitea **PROPOSATZEN DUT**:

Por todo lo anterior, **PROPONGO** los cambios siguientes:

**ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.**

**ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES.**

**15. artikulua ALDATZEA. Honela geratuko dira idatzita:**

**MODIFICAR el artículo 15 que quedaría redactado de la siguiente manera:**

**15. artikulua:**

1. Ondoren aipatuko diren hobari hauek ezarri dira familia ugariaren titularitatea duten subjektu pasiboen alde, seme-alaba kopuruaren arabera eta diru-sarreren arabera, betiere. Hona hemen taula:

**Artículo 15.**

1. Se establecen las siguientes bonificaciones a favor de aquellos sujetos pasivos que ostenten la condición de titulares familia numerosa en función del número de hijos y de los ingresos que se establecen a continuación:

| SEME-ALABA KOPURUA / Nº DE HIJOS | DIRU-SARRERAK / INGRESOS ECONÓMICOS | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 0 – 20.000 € | 20.001 € - 40.000 € | 40.001 € - 70.000 € | 70.001 € - 90.000€ |
| 3 seme-alaba arteko familiak / Familias de hasta 3 hijos/as | % 90 % | % 70 % | % 60 % | % 50 % |
| 4 seme-alabako familiak / Familias de 4 hijos/as | % 90 % | % 80 % | % 70 % | % 60 % |
| 5 edo gehiago seme-alabako familiak / Familias de 5 ó más hijos/as | % 90 % | % 90 % | % 80 % | % 70 % |

Diru-sarreren maila honela zehaztuko da: batu egingo dira zerga-oinarri orokorra, aurrezkiaren likidazio-oinarria eta lanaren hobaria, oinarri hartuta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren deklarazioa, familia-unitateko kide guztien etekin fiskalaren aurreko urteari dagokiona.

El nivel de ingresos se determinará por la suma de la base imponible general, base liquidable del ahorro y la bonificación del trabajo en base a la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (IRPF) del año inmediatamente anterior al del beneficio fiscal de todos los integrantes de la unidad familiar.

Aitorpen hori egitera behartua egon ezean, familia-unitatearen diru-sarrerak zehazteko, ziurtagiria aurkeztu behar da inguruabar hori egiaztatzen duena, bai eta familia-unitateko kide guztien urte horretako informazio fiskala ere.

En caso de no haber estado obligado a la presentación de la misma, para poder determinar los ingresos de la unidad familiar será necesario presentar certificado que acredite dicha circunstancia e información fiscal de todos los miembros de la unidad familiar.


Untzaga plaza, 1 • 20600 EIBAR Gipuzkoa • Tlf. 943 70 84 00 - Faxa: 943 70 84 20 • e-mail: pegora@eibar.eus • www.eibar.eus

Familia-unitate bakarra osatzen dute legez bananduta ez dauden ezkontideek, izatezko bikoteen kideek eta, baleude, jarraian aipatzen diren hauek:

a) 25 urtetik beherako seme eta alaba ezkongabeek, haiekin batera etxe berean bizi direnek.

b) Epai-aginduz ezgaituak dauden eta guraso-ahala luzatu edo birgaituaren menpekoak diren 25 urtekoek edo hortik gorako seme-alabek.

Legezko banaketaren kasuan, edo ezkon-loturarik ez badago edo izatezko bikoterik ez bada eratu, bai eta horren inguruko ebazpen judiziala dagoenean ere, família-unitate izango da guraso batez eta aurreko ataletan aipatzen diren seme eta alaba guztiez osatutakoa, zeinekin bizi diren kontuan hartu gabe.

Familia-unitatea eratzeko ondorioetarako, seme-alaba guztiak gurasoetako bati esleituko zaizkio, biek hartutako akordioaren arabera.

Akordiorik ez badago, familia-unitate izango da guraso batek eta seme-alaba guztiek osatutakoa, baldin eta guraso horrek seme-alaben zaintza berak bakarrik badu esleitua ebazpen judizial batez. Kasu horretan, bi familia-unitate egon litezke, eta unitate bakoitza osatuko da guraso batez eta ebazpen judizialez guraso horri bakarrik esleitu zaion zaintzapean dauden seme-alabez. Kasu horretan, familia-unitatea izateko, beharrezkoa izango da seme edo alaba baten zaintza judizialki esleituta izatea.

Inor ezin da izan aldi berean bi familia-unitateren kide.

Etxebizitzak katastroan duen balioa 84.682 eurotik gorakoa bada, hobariaren portzentajeak murrizten joango dira; horrela, hobariz lagundutako kopuru hori ez da izango 84.682 euroko katastroaren balio horri lehenxeago esandako hobari mota horiek aplikatzetik aterako litzatekeenetik gorakoa.

2. Hobaria eskuratzeko baldintzak hauexek dira:

a) Zergaren subjektu pasiboa, zergaduna, familia ugariaren titularra izan behar da.

b) Etxe bakar bat izango da hobaria jasoko duena, familia ugari horren ohiko bizilekuak edo etxebizitzak, ohiko bizilekutzat familiako kide guztiak agertzen diren erroldakoa hartuz.

c) Jabekidetzaren kasuan, ezkontideek, izatezko bikotekideek edo seme-alabek, guztien artean, etxebizitzaren jabetzaren edo gozamenaren ehuneko ehun izan behar dute.

d) Familia ugariko kideetako batek berak ere ezin du eduki udalerrian bizileku-izaerako beste higiezin baten titulartasuna % 50eko portzentajean edo hortik gorakoan.

Muga hori aplikatzeko, Udalak ofizioz egiaztatuko du familia ugariko kide bakoitzak herrian duen bizitegi-izaerako higiezin bakoitzaren titulartasunaren portzentajea.

Constituyen unidad familiar los cónyuges no separados legalmente, así como los miembros de la pareja de hecho y, si los hubiere:

a) Los hijos e hijas solteros/as menores de 25 años que convivan con ellos en el mismo domicilio.

b) Los hijos e hijas de 25 o más años incapacitados judicialmente sujetos/as a patria potestad prorrogada o rehabilitada.

En el caso de separación legal o cuando no exista vínculo matrimonial o pareja de hecho constituida, así como en los casos de existencia de resolución judicial al efecto, la formada por un progenitor y todos los hijos e hijas a que se refieren los dos apartados anteriores, independientemente de con quien convivan.

A los efectos de constituir unidad familiar, la totalidad de los hijos e hijas se atribuirá a uno solo de los progenitores, según acuerdo de ambos.

Si no constare dicho acuerdo, constituirá unidad familiar el progenitor con la totalidad de los hijos e hijas cuyo cuidado tenga atribuido de forma exclusiva en virtud de resolución judicial. En este supuesto, podrán existir dos unidades familiares y cada unidad familiar estará constituida por el progenitor y los hijos e hijas cuyo cuidado tenga atribuido judicialmente de forma exclusiva. En este caso para constituir unidad familiar se precisará tener atribuido judicialmente el cuidado de algún hijo o hija.

Nadie puede formar parte de dos unidades familiares al mismo tiempo.

En el caso de viviendas con valor catastral superior a 84.682 €, los porcentajes de bonificación se reducirán en la parte que corresponda, de forma que la cantidad bonificada no exceda de la que resultaría de aplicar los tipos de bonificación antes indicados al valor catastral de 84.682 €

2. Los requisitos para acceder a la bonificación serán los siguientes:

a) El sujeto pasivo del Impuesto deberá de tener la condición de titular de familia numerosa.

b) Sólo será objeto de bonificación un único inmueble, que se corresponderá con el de residencia habitual de la familia numerosa, entendiéndose como tal aquélla en la que se encuentren empadronados los miembros de la familia.

c) En el caso de copropiedad, los cónyuges, los/as miembros/as de la pareja de hecho o los/as hijos/as deben de ostentar, entre todos, el cien por cien de la propiedad o usufructo de la vivienda.

d) Ningún miembro de la familia numerosa podrá ostentar la titularidad de otro inmueble de carácter residencial en el municipio en un porcentaje igual o superior al 50 %.

Para la aplicación de este límite se comprobará de oficio por el Ayuntamiento el % de titularidad que cada miembro de la familia numerosa tiene en cada inmueble de carácter residencial que posee en el municipio.

3. Hobaria eskuratzeko aurkeztu behar diren agiriak:

a) Zergaren sortzapenean indarrean dagoen familia ugariaren titulua.
b) Familia Liburua.
c) Bizikidetza Ziurtagiria Zergaren sortzapenaren unean

d) Etxebizitzaren jabe izatearen titulua. Eskaera egiten den aurreneko aldiz bakarrik.
e) Familia-unitateko kide guztien Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) aitorpena, etekin fiskalaren aurreko urteari dagokiona. Aitorpen hori egitera behartua egon ezean, inguruabar hori egiaztatzeko ziurtagiria aurkeztu behar da, bai eta familia-unitateko kide guztien urte horretako informazio fiskala ere.

f) Legezko banaketaren kasuan, edo ezkon-loturarik ez badago edo izatezko bikoterik ez bada eratu, bai eta horren inguruko ebazpen judiziala dagoenean ere:

- Guraso bati semeak edo alabak esleitzeko akordioa.
- Horren inguruko ebazpen judiziala.

g) Hala badagokio, guraso-ahala luzatuta edo birgaituta duten 25 urteko edo gehiagoko seme-alabak ezgaitzea.

4. Hobari-eskaerak aurkezteko epea:

Hobaria urtero eskatu beharko da.

Eskabideak aurkezteko epea 6 hilabetekoa izango da, apirila-iraila bitartean, eta ordaindutako zenbatekoaren itzulketa partzial gisa izapidetuko da.

3. Documentación a presentar para acceder a la bonificación

a) Título de familia numerosa que se encuentre vigente en el momento de devengo del impuesto.
b) Libro de Familia.
c) Certificado de convivencia a fecha del momento del devengo del impuesto. El Ayuntamiento adjuntará a la solicitud el mencionado certificado.
d) Título de propiedad del inmueble. Solamente la primera vez que se realiza la solicitud.
e) Declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (IRPF) del año inmediatamente anterior al del beneficio fiscal, de todos los integrantes de la unidad familiar. En caso de no haber estado obligado a la presentación de la misma, certificado que acredite dicha circunstancia e información fiscal de todos los miembros de la unidad familiar

f) En el caso de separación legal o cuando no exista vínculo matrimonial o pareja de hecho constituida, así como en los casos de existencia de resolución judicial al efecto:
- Acuerdo por el cual se atribuye a uno de los progenitores los hijos o hijas.
- Resolución judicial al efecto.

g) En su caso, incapacitación de los hijos e hijas de 25 o más años judicialmente sujetos/as a patria potestad prorrogada o rehabilitada.

4. Plazo para la presentación de solicitudes de bonificación:

La bonificación deberá solicitarse anualmente.

El plazo para la presentación de solicitudes será de 6 meses, durante el periodo abril- septiembre, y será tramitado como una devolución parcial del importe abonado.

**14.4. artikulua KENTZEA**

**ELIMINAR el artículo 14.4.**

Eibarren, 2021eko uztailaren 23an

En Eibar, a 23 de julio de 2021

ALKATEA

EL ALCALDE

JON IRAOLA IRIONDO

EIBARKO ALKATETZA — ALCALDIA DE EIBAR